

IRABAZI ITURRIAK

Enpresaren irabazi-iturri nagusia aktiboen salmenta da (Cable Free Connection). Printzipo batean, prezioak finkoak izango dira, baina eskarien arabera deskontuak, rapelak, etab. egingo ditugu. Horrez gain, ordainketa bakarreko diru-sarrerak izango dira.

Saltzeko moduari dagokionez, aldi batean edo epeka egingo da produktuaren ordainketa, beti ere, bezeroen nahiaren arabera.

Bestalde, beste irabazi iturri desberdin batzuk izango ditugu; hala nola, aktiboaren konponketak.

Lehendabiziko urteetan, salmenten aurreikuspenak oso handiak izatea espero da, gure produktua ondo eta asko saltzea espero dugulako. Horren ondorioz, etorkizun batean salmentak gutxitu egingo direnez, konponketen kopurua handitu egingo da eta hauen bidez lortuko ditugu irabaziak.

Etorkizuneko irabazi iturri nagusiak konponketak eta gure produktuaren garapenean oinarrituta egongo dira. Eta urteak pasa ahala, gure produktua hobetzen saiatuko gara, horrela salmentak handiagoak izateko.

